

DEIALDIA, OPOSIZIO-LEHIAKETA BIDEZ BETETZEKO UDALAREN ETA HAREN ERAKUNDE AUTONOMOEN ZERBITZUKO DESINFEKZIO PARKEKO ZERBITZUBURUAREN 1 PLAZA.

IZENDAPENA.

Tokiko Gobernu Batzarrak 2026ko apirilaren. 27an egindako bilkuran honako erabaki hau hartu zuen:

Behin amaiturik Iruñeko Udalaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzura aritzeko desinfekzio parkeko zerbitzuburuaren 1 plaza oposizio bidez betetzeko hautapen-prozesua –deialdi hori Tokiko Gobernu Batzarrak 2025eko ekainaren 9an hartutako erabaki bidez onetsi zen, eta 2025eko 127. Nafarroako Aldizkari Ofizialean, ekainaren 26koan, argitaratu zen–, eta bat etorrita hautaketa-epaimahaiak emandako izendapen-proposamenarekin, behin eskatutako agiriak aurkeztuta, eta bete dadin Nafarroako Administrazio Publikoetan sartzeko Erregelamendua onesten duen 113/1985 Foru Dekretuaren 32. artikuluan xedatutakoa, honako hau ERABAKITZEN DA:

1. Iruñeko Udaleko funtzionario izendatzea, desinfekzio parkeko zerbitzuburu lanposturako. Plaza jarraian xedatutakoaren arabera esleituko zaio:

IZENDATUA	ESLEITUTAKO PLAZA	ARAU BIDE JURIDIKOA
LACASTA IZURA, LAURA	1-301700-1	Funtzionarioa

2. Izendatutako izangaiak **2026ko ekainaren 1ean** hartu beharko du lanpostuaren jabetza.

3. Agintzea Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Iruñeko Udalaren webgunean (www.pamplona.es/eu) argitaratu dadila.

Erabaki honen aurka honako errekurtsio hauetako bat paratzen ahal da, aukeran:

- BERRAZTERTZEKO errekurtsioa, egintza gauzatu duen organoari zuzendua, HILABETEKO epean, ebazpen hau Iruñeko Udalaren webgunean argitaratu eta biharamunetik aitzina.
- GORA JOTZEKO errekurtsioa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, HILABETEKO epean, ebazpen hau Iruñeko Udalaren webgunean argitaratu eta hortik aitzina.
- ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZI-errekurtsioa, Administrazioarekiko Auzien Epaitegiari zuzendua, BI HILABETEKO epean, ebazpen hau Iruñeko Udalaren webgunean argitaratu eta biharamunetik aitzina.

Iruñean, 2026ko apirilaren 27an.- Tokiko Gobernu Batzarreko idazkaria, Garbiñe Bueno Zabalza.